

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

188/2026 Foru Agindua, ekainaren 30ekoa. Hasiera ematea Zuiako udalerrian kokatuta dauden onura publikoko mendi hauek mugatzeko eta mugarritzeko prozedurei: 740 zenbakiko mendia ("Arrato eta Laube"), Jugoko herriarena; 743 zenbakiko mendia, "San Fausto" izenekoa, "Kulukupadura" tartearen barne, Gillernako herriarena; eta 744 zenbakiko mendia, "San Román" izenekoa, Aperregiko herriarena, hasiera batean iraungitako prozeduren egintza eta izapideei eusteko xedatuz

Jugoko "Arrato eta Lanbe" OPko 740 mendiaren, Gillernako "San Fausto" OPko 743 mendiaren eta Aperregiko "San Román" OPko 744 mendiaren mugaketa prozedura Diputatuen Kontseiluaren irailaren 10eko 625/1991 Foru Dekretuaren bidez hasi zen jatorriz. Izan ere, dekretu horren bidez erabaki zen Zuiako udalerrian dauden mendi publiko jakin batzuk mugaketa egoeran daudela adieraztea eta iraungitzat jo zen Nekazaritzako foru diputatuaren martxoaren 25eko 81/2026 Foru Aginduaren bidez, ez zelako epearen barruan ebatzi.

Kulukupadura izeneko onura publikoko mendia mugatzeko prozedura, Gillernako herriaren jabetzakoa, Zuiako Udaleko Landa Katastroko 3 poligonoko 620 lurzatiari dagokiona, Ingurumen zuzendariaren 2006ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez hasi zen, eta Nekazaritzako diputatuaren maiatzaren 21eko 131/2026 Foru Aginduaren bidez iraungitzat jo zen, epearen barruan ebatzi ez zelako.

Jugoko onura publikoko 740 zenbakiko mendia.

Neurtze lanak 1994ko martxoaren 22an, apirilaren 12an eta 19an, maiatzaren 10ean, 17an, 24an eta 31n, ekainaren 7an, 14an eta 26an eta uztailaren 5ean egin ziren, horretarako egindako aktetan jasotzen denez. Behin-behineko neurtze eta mugarritze lanak amaitu ondoren, eragindakoei jakinarazi zitzaien espedientea jendaurrean jarri eta alegazioak aurkezteko epea irekiko zela, 1997ko ekainaren 15etik aurrera.

Alegazioei irekitako epean, G. I. S. L.k, M. L. E.k eta M. C. L. E.k erreklamazioa jarri zuten idatziz, eta, ondorioz, onura publikoko 740 mendiaren mugaketa egoera bigarren fasean zegoela adierazi zen, eta horren iragarkia 1999ko irailaren 27 ALHAOn (114. zk.) argitaratu zen, eta iragarkiaren testua jakinarazi zitzaien interesdun ezagunei, fisikoei zein juridikoei, hartu agiria zuen gutun baten bidez. 1999ko azaroaren 25ean egin ziren aurkeztutako alegazioei zegozkien neurketa lanak.

Bigarren fasean mugatutako tarteen behin-behineko mugatze eta mugarritze lanak amaitu ondoren, 2002ko urtarrilaren 9ko ALHAOn (4. zk.) argitaratu zen 2. faseko mugaketa espedientea jendaurrean jarri eta erreklamazio aldia ireki izanaren iragarkia. Iragarki hori interesdun fisiko eta juridiko ezagunei jakinarazi zitzaien, hartu izanaren agiridun gutun baten bidez. Ez da alegaziorik jaso horretarako jarritako epean.

Aperregiko onura publikoko 744 mendia.

Neurtze lanak 1993ko otsailaren 22an, martxoaren 8an, maiatzaren 20an eta 31n, ekainaren 8an, 15ean eta 22an, uztailaren 12an, 14an eta 20an egin ziren, horretarako egindako aktetan jasotzen den bezala. Behin-behineko neurtze eta mugarritze lanak amaitu ondoren, eragindakoei jakinarazi zitzaien espedientea jendaurrean jarri eta alegazioak aurkezteko epea irekiko zela, 1997ko otsailaren 1etik aurrera.

Alegazioei irekitako aldian, J. A. A. U.k eta J. L. S. L.k erreklamazioa aurkeztu zuten idatziz, eta, ondorioz, onura publikoko 744 mendia bigarren faseko mugaketa egoeran zegoela adierazi zen. Iragarkia 1999ko irailaren 27ko ALHAOn (114. zk.) argitaratu zen, eta interesdun fisiko eta juridiko ezagunei iragarki horren testua jakinarazi zitzaien, hartu agiria zuen gutun baten bidez. 1999ko azaroaren 23an eta 25ean egin ziren aurkeztutako alegazioei zegozkien neurketa lanak, eta akta egin zen.

Bigarren fasean mugatutako tarteen behin-behineko mugatze eta mugarritze lanak amaitu ondoren, 2002ko urtarrilaren 9ko ALHAOn (4. zk.) argitaratu zen 2. faseko mugaketa espedientea jendaurrean jarri eta erreklamazio aldia ireki izanaren iragarkia. Iragarki hori interesdun fisiko eta juridiko ezagunei jakinarazi zitzaien, hartu izanaren agiridun gutun baten bidez. Ez da alegaziorik jaso horretarako jarritako epean.

Gillernako onura publikoko 743 mendia.

Onura publikoko 734 mendiaren mugaketarekin bat eginez, lehen faseko neurtze lanak 1993ko urtarrilaren 19an eta 28an eta martxoaren 22an eta 2000ko azaroaren 17an egin ziren, horretarako egindako aktetan jasotzen den bezala.

2001eko martxoaren 9ko ALHAOn (29. zk.), iragarri zen “San Fausto” izeneko onura publikoko 743 zenbakiko mendia, Gillernako herriaren jabetzakoa, mugatze egoeran (2. fasea) dagoela iragartzen da. Neurtze lanak 2001eko urriaren 17an eta 18an eta abenduaren 12an egin ziren.

Bigarren fasean mugatutako tarteen behin-behineko mugatze eta mugarritze lanak amaitu ondoren, 2002ko urtarrilaren 9ko ALHAOn (4. zk.) argitaratu zen 2. faseko mugaketa espedientea jendaurrean jarri eta erreklamazio aldia ireki izanaren iragarkia. Pentsa daiteke iragarkia interesdun fisiko eta juridiko ezagunei hartu agiria zuen gutun baten bidez jakinarazi zitzaizela, eta B. L.k erreklamazio bat jarri izanaren zantzuak ere badaude, nahiz eta espedientean ez den horren dokumentu frogarik aurkitu. Lur neurketako zenbait jardunaldiren emaitza planoetan ageri da eta dagozkion mugarriak daude, baina aktak ez dira gorde, eta, beraz, errepikatu egin behar dira.

Gillernako Kulukupadura herri mendia (63-3-620 katastro lurzatia).

Neurtze lanak 2006ko maiatzaren 4an egin ziren. Lurzatiak Hezeguneen LPS behin betiko onesten duen 160/2004 Dekretuan definitutako III. multzoko hezegune bat du. Gainera, Natura Sareko ES2110009 “Gorbeia” Kontserbazio Bereziko Eremuan dago. Beraz, Mendiei buruzko Foru Arauaren 17. artikuluan onura publikokotzat jotzeko eskatzen diren ezaugarriak betetzen ditu. Bidezkoa da, beraz, lurzati hori Gillernako onura publikoko mendian integratzea sustatzea, prozedura berean kentzen baitzaio muga.

Kontuan hartuta aipatutako mendien mugaketa egiteko beharrezkoak diren lanak aurreratuta daudela, neurketa guztiak eta behin-behineko mugarritzea eginda baitaude, eta jabearen interesekoa eta interes orokorrekoa dela hasitako mugaketak amaitzea, bidezkoa da mugaketa eta mugarritze prozedurak berrabiaraztea.

Beraz, nahitaezko txostenak ikusita eta Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 legegintzaldirako sailak zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera (Diputatu Nagusiaren ekainaren 28ko 78/2024 Foru Dekretuak aldatua), honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onura publikoko mendi hauek mugatzeko eta mugarriak jartzeko prozedurak hastea:

— 740 zenbakia, “Arrato eta Laube” izenekoa, Jugoko herriaren jabetzakoa.

— 743 zenbakia, “San Fausto” izenekoa, “Kulukupadura” mendi publikoa barne. Onura publikokoa izango litzateke, onura publikoko 743 mendiaren barruan geratuko litzatekeelako, Gillernako herriaren jabetzakoa.

— 744 zenbakia, “San Román” izenekoa, Aperregiko herriaren jabetzakoa.

34/26, 35/26 eta 36/26 espediente zenbakiekin izapidetuko dira, hurrenez hurren.

Bigarrena. Agintzea ondorioak izan ditzaten eta iraungitako espedientearekin zerikusirik ez duten egintzak sar daitezen, hala nola:

— interesdunek dagozkien eskubideak egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioa, egindako plano topografikoak eta 81/2026 Foru Aginduan deskribatutako 90. hamarkadan eta 2000ko lehenengo hamarkadan egindako neurketen aktak.

— Gillernako Kulukupadurako 2006ko maiatzaren 4ko neurketa aktak.

— Aperregiko onura publikoko 744 mendiaren adiskidetasunezko lur neurketaren akta, 2026ko apirilaren 21ekoa, titulartasun pribatuko 1 poligonoko Urretxaga aurkintzako 606, 607, 1119, 1120 eta 1121 lurzatiekin muga egiten duena, iraungitako prozeduran definitu gabe geratu zirenak.

Hirugarrena. Adieraztea mugaketa egoeran daudela Zuiako udalerrian kokatuta dauden onura publikoko mendi hauek: 740 zenbakiko mendia (“Arrato eta Laube”), Jugo herriarena; 743 zenbakiko mendia, “San Fausto” izenekoa, Gillernako herriarena; eta 744 zenbakiko mendia, “San Román” izenekoa, Aperregiko herriarena; bai eta “Kulukupadura” herri mendia, Gillernako herriarena. Adierazpen horri ez zaio murrizketarik jartzen.

Laugarrena. Onura publikoko mendi hauei dagokienez: 740 mendia, “Arrato eta Laube” izenekoa, Jugoko herriaren jabetzakoa; eta 744 mendia, “San Román” izenekoa, Aperregiko herriaren jabetzakoa, interesdunei jakinaraztea Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendiei buruzko Arautegia-ren 120. eta 121. artikuluetan xedatutakoaren arabera, espediente Zuiako Udalaren bulegoetan (Udal plaza 1, 01130 Murgia) egongo dela, iragarki hau argitaratu eta hurrengo hamabost egun baliodunetan, aztertu ahal izateko. Iragarki hau argitaratu eta hurrengo hogeita hamar egun baliodunetan aurkeztu ahal izango zaizkio zuzenbidearen arabera erreklamazioak Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari, bai telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez edo beste administrazio publiko baten erregistro elektronikoen, bai Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001 Vitoria-Gasteiz), bai Zuiako Udalaren bulegoetan, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan. Jabetzari buruzko erreklamazioei dagokienez, ohartarazten da erreklamazioan berariaz aipatu behar dela administrazio bidea amaitzeko asmoz aurkeztu direla, aldez aurreko izapide gisa, gero arlo zibileko epaitegietara jotzeko.

Bosgarrena. “San Fausto” izeneko onura publikoko 743 mendiari eta Kulukupadura herri mendiari dagokienez –biak ere Gillernako herriaren jabetzakoak–, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan eta otsailaren 22ko 485/1962 Dekretuaren bidez onetsitako Mendien Arautegian jasotakoaren arabera, ediktu hau argitaratu eta 45 egun naturaleko epean mendiaren edo mendiaren zati baten jabetzarako eskubidea duten pertsonak eta mugakide izanik eduki dezaketen eskubidea egiaztatu nahi dutenek, dagozkien agiriak aurkeztu beharko dituzte, Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari zuzenduak, bai telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen edo beste administrazio publiko baten erregistro elektronikoen, bai Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, 01001, Vitoria-Gasteiz), Zuiako Udalaren bulegoetan (Udal plaza 1, 01130, Murgia), bai Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako beste edozein erregistrotan.

Gainera, lur neurketa osagarriak egingo direla iragartzen da, lurraren gainean mugarriak egon arren, iraungitako prozeduraren lur neurketen aktarik ez dagoen tarteetan. Neurketa lanak hasteko eguna dagokion lekuan eta egunean iragarriko dira eta mugakide ezagunei edota katastroan daudenei pertsonalki jakinaraziko zaie. Egintza horretara joan beharko dute mugakideek eta interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsonak. Neurketa lanetara aurkezten ez direnek edo legezko ordezkari edo borondatezko bat igortzen ez dutenek ezingo dute gero erreklamaziorik aurkeztu, hargatik eragotzi gabe alegazioak jabetza erregistroan inskribatutako tituluekin batera aurkezten dituztenek izan dezaketen eskubidea.

Seigarrena. Mendiei buruzko martxoaren 12ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikulua aldatzen duen otsailaren 15eko 4/2023 Foru Arauan xedatutakoaren arabera, espediente hau ebazteko ezarritako epea 24 hilabeteko a da, eta epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ez badago, iraungi egingo da.

Zazpigarrena. Ebazpen hau prozedurako interesdun guztiei jakinaraztea eta ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 30a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMI AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNANDEZ SARABIA